RE-COMPENSA

Gaitasunak aitortzeko sistema bat sortzea, boluntario-lanaren barruan eskuratzen direnak nabarmentzeko. Baita motibazioa eta lidergoa sustatzeko ere, garapen pertsonal eta profesionaletik abiatuta.

1. Boluntario-lanaren bidez eskuratutako konpetentziak aitortzeko sistema bat diseinatzea eta abian jartzea, lan horri balio soziala eta profesionala emate aldera.

2. Enpresa-antolakundeekin harremanak ezartzea, konpetentziak aitortzeko sistemari atxiki daitezen.

DIDAKTIKA

Hezkuntzaren eremua gaitasunetan eta balioetan prestatzeko gune naturala izanik, ekintza boluntarioaren balioaz sentsibilizatzea, egungo hezkuntza-sentsibilizazioko programak bateratuz eta ekimen berritzaileak kontuan hartuz.

1. Hezkuntza Sailarekin koordinazio-bilerak egitea, boluntariotza hezkuntza-etapa guztietako curriculumean sartzeko.
2. DIDAKTIKA gida ikastetxeetan zabaltzea.
3. Begiraldatu eta Unikide programak eta antzekoak etengabe garatzea.
4. Unibertsitateekin harremanetan jartzea.

ESCUELA VASCA DE VOLUNTARIADO (SKVL)

Boluntario-lana egiten duten pertsonei gaitasun tekniko, generiko eta zeharkakoak emango dizkien gune bat sortzea, sinergiak optimizatu eta komunitate inklusiboak sortzeko, baita pertsonak zaintzeko eta ahalduntzeko ere, eta, bereziki, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren ildo estrategikoekin lerrokatuta dauden eremuetan.

1. Prestakuntza digitala ematea eta antolamendu-kudeaketako eta kudeaketa ekintzaileko ereduei buruz trebatzea.
2. Kudeaketa-taldeetako kideei ikuspegi intersekzionalari eta inklusiboari buruzko prestakuntza ematea.
3. Nahi ez den bakardadea detektatzeko prestakuntza ematea.
4. Boluntarioak zaintzeko eta laguntzeko baliabideak zabaltzea.
5. Hainbat antolakundetako boluntarioak topatzeko eta elkarrekin ikasteko guneak sustatzea.
6. Hiru lurraldeetako toki-entitateen sareek jarduera bateratuak egitea.

KOMUNIKA

Komunikazio-plan bat ezartzea, estrategia honen helburu gehienak hedatzeko eta lortzeko tresna estrategiko gisa. Partaidetza eta ekintza boluntarioa eraldatzeko, sentsibilizatzeko, ikusarazteko eta aitortzeko bide gisa balio izatea.

1. Komunikazio-plana abian jartzea, boluntariotzari ikusgarritasuna eta aintzatespena emateko.

2. Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna (abenduaren 5a) ospatzeko eta aintzatesteko ekitaldia antolatzea.

BIDAIDE+

Egitura parte-hartzailea eta betearazlea oinarri duen gobernantza-eredua ezartzea, erabakiak hartzean gardentasuna, erantzukizuna eta legitimitatea bermatzeko. Ikuspegi horren helburua da inplikatutako eragile guztiak —sektore publikoa, enpresa-sektorea, esparru akademikoa eta gizarte zibila— erantzukidetasuna eta sareko lankidetza sustatuko dituen lankidetza-esparru batean integratzea.

1. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendua berrikustea, dinamikoagoa, parte-hartzaileagoa eta integratzaileagoa izan dadin.

2. Administrazio publikoen, entitateen eta boluntariotzako plataformen arteko koordinazio- eta lankidetza-protokolo bat diseinatzea.

3. Gizarte zibilarekin kontrastatzeko tresnak lantzea eta praktikan jartzea, eragile komunitarioekin hitz egiteko espazioak bultzatuz.

IKERKUNTZA

Ikerketa, prestakuntza eta berrikuntza sustatzea, boluntariotza indartzeko eta egungo testuingurura egokitutako parte-hartze sozialerako modu berriak aztertzeko funtsezko tresna gisa. Parte-hartzeari eta boluntario-lanari buruzko informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta zabaltzea, alderdi horien berrikuntza eta kudeaketaren eta esku-hartzearen etengabeko hobekuntza bultzatzeko.

1. Boluntarioak eta antolakundeak konektatzea erraztuko duten tresnak diseinatzea.
2. Dauden tresna digitalak indartzea eta eguneratzea, behar eta joera berriak txertatuz.
3. Boluntariotzari eta desgaitasunari buruzko azterlan espezifiko bat egitea, bizimodu independentearen eredua babestuko duena.
4. Antolakundeen jasangarritasunari begira arazotsuenak diren kudeaketa-alderdiei buruzko azterlan bat egitea.
5. Boluntariotzako antolakundeen belaunaldi-erreleboari eta lidergoari buruzko diagnostikoa egitea genero-ikuspegitik.
6. Boluntariotzako antolakundeen finantzaketa-ereduei buruzko azterlan bat egitea.
7. Belaunaldiarteko elkartasuna indartzen duten ekintzak mapatzea eta zabaltzea.
8. Boluntarioen Europako Zentroko ikerketa-taldeetan parte hartzea.

IN(VOL)UCRA

Pertsona orok boluntariotzan parte har dezan erraztea, aniztasuna, inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatuz. Profil eta egoera desberdinetako pertsonak boluntario izatera animatu nahi dira, eta, horretarako, bidea erraztuko zaie; boluntariotzaren kudeaketa-ziklo osoan bermatuko da pertsona horiek zainduta eta lagunduta daudela.

1. Boluntarioak eta antolakundeak konektatzea erraztuko duten tresnak diseinatzea.
2. Enpresa-antolakundeekin topaketa-saio batzuk egiteko egutegia ezartzea, boluntario-lanaren balioaren berri emateko eta lan hori erantzukizun sozial korporatiboan integratzeko.
3. Saileko lehentasunezko kolektiboei, egokitutako sentsibilizazio-kanpainak zabaltzea.
4. Pertsonak aktibatzea boluntario-lanetan hasteko, belaunaldiarteko eta kulturarteko ikuspegia erabiliz.
5. Plan pilotuak egitea talde kalteberetako kideak boluntario izatera animatzeko.

GUZTION ARTEAN

Boluntariotzaren ikuspegi komunitarioa indartzera bideratutako proiektua da; gizarte-kohesioa eta herritarren partaidetza sustatzen ditu. Asmoa da boluntariotza aktibatuz komunitatea dinamizatzea, pertsonen, entitateen eta belaunaldien arteko loturak indartzea eta belaunaldiarteko elkartasuna sustatzea, balioak, ezagutza, kultura eta ongizate kolektiboa transmititzeko funtsezko printzipio gisa.

1. Lantalde bat sortzea, ikuspegi eta egitura komunitarioa bultzatzeko.
2. Belaunaldiarteko mentoretzako programak diseinatzea eta garatzea.
3. Sailaren tresna guztietan komunitatearen ikuspegia txertatzea.

AZALDU

Proiektu hau boluntariotzaren balioa ikusaraztera eta komunikatzera bideratuta dago, herritarrek jakin eta uler dezaten zer-nolako garrantzia duen boluntario-lanak gizarteari begira. Boluntariotzak gizartean eta ekonomian duen eragina azaldu nahi du, eta gizarte kohesionatuagoa eraikitzeko duen garrantzia ezagutarazi. Neurtu, erabakitzeko.

1. Beste autonomia-erkidego batzuetan eta Europako beste herrialde batzuetan erabiltzen dituzten metodologiak berrikustea.

2. Boluntariotzaren inpaktu soziala eta ekonomikoa neurtzeko balio dezaketen adierazleak identifikatzea.

3. Boluntariotzaren inpaktua ebaluatzeari buruzko gida metodologiko bat egitea, antolakunde mota desberdinetara egokituta.

4. Emaitzak biltzeko eta bistaratzeko tresna digital bat diseinatzea.